

Orioko Udala

Ekipamenduei buruzko partaidetza prozesuaren txostena

2017ko abendua





1. Sarrera	3
2. Helburuak	4
2.1. Helburu nagusia.....	4
2.2. Helburu zehatzak.....	4
2.3. Zeharkako helburuak.....	4
3. Prozesuaren deskribapena	5
3.1. Urratsak.....	5
4. Emaiza	8
4.1 Partaidetza-datuak	8
4.2 Ekipamenduen balorazioa.....	8
4.3 Hobekuntzak lehendik dauden ekipamenduetan.....	9
4.4 Ekipamendu berriak.....	12
4.5 Ekipamendu berriak lehenetsita.....	14
5. Balorazioa	16



Orioko Udalak, ekipamenduei buruzko hausnarketa egin nahi izan du. Horretarako abiapuntua gaur egungo errealitatea ondo ezagutzea izan da, eta, errealitate honetaz jabetu ondoren, herritarrek dituzten beharrak eta interesak jaso eta lehentasunak lantzea herriaren ikuspegi orokorra kontuan hartuta. Dokumentu honetan jaso dugu prozesuan egin eta erabaki direnak.



2. Helburuak

Partaidetza-prozesuak honako helburu hauek izan ditu:

2.1. Helburu nagusia

- ⇒ Orioko ekipamenduen gaur eguneko egoeraz jabetu ondoren, herritarrek dituzten beharrak ezagutzea, eta, herriaren ikuspegi orokor batetik lehentasunak ezartzea.

2.2. Helburu zehatzak

- ⇒ Herritarrek Oriok gaur egun dituen ekipamenduen berri izatea. Ekipamenduen egoera eta beharrianak zeintzuk diren eta datozen urteetan izan daitezkeenak.
- ⇒ Orioko herritarrek ekipamenduei dagokienez, dituzten beharrak eta etorkizunean izan ditzaketenak ezagutzea eta konpartitzea.
- ⇒ Orioko herritarrek izan ditzaketen beharrak eta Udalak dituen aukerak kontuan hartuta, lehentasunak adostea.

2.3. Zeharkako helburuak

- ⇒ Oriotarrak subjektu aktiboak izatea.
- ⇒ Bizitza komunitarioa eta kultura politikoa politika publikoen zerbitzura jartzea, eta udal-arduradunek herritarren beharrak, nahiak, iritziak eta interesak jasotzea eta aintzat hartzea.



3. Prozesuaren deskribapena

Hona hemen prozesuan zehar eman ditugun pausoak eta egin ditugun lanak:

3.1 Urratsak

3.1.1. Aurrelanak eta komunikazioa

Talde Eragilea izan da egitasmo hau antolatzeko, kudeatzeko eta segimendua egiteko ardura izan duena, baita egitasmoa garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzekoa ere. Hasieran Udaleko teknikariak eta alkateak osatzen bazuten taldea ere, azken bi bileretan honako hauek osatu dute taldea:

- Jose Angel Zaldua (alkatea),
- Emeterio Iribar eta Aizpea Ubegun (EHBilbu),
- Ana Priede (PSE),
- Ibai Lertxundi (idazkaria),
- Pilar Azurmendi (arkitektoa),
- Jabier Zabaleta (euskara eta partaidetza).
- Elhuyarretik Jon Abril eta Amaia Zarrabeitia.

Guztira **hiru** batzar egin ditugu. Urriaren 24an, abenduaren 11n, eta azkena, abenduaren 20an.

Bestalde, Hirigintza Batzordean, herritarrekin saioak hasi baino lehen, Elhuyarrek prozesua aurkeztu zuen.



3. Prozesuaren deskribapena

6.

3.1.2. Herritarrekin saioak

BILERA-EGUNA	EGINDAKOA
2017ko azaroak 22: Kultura/Gazteria /Kirola-	<ul style="list-style-type: none">• Sarrera: ongi-etorria• Prozesua zergatik eta zertarako• Diagnostikoaren aurkezpena• Taldeetan lana:<ul style="list-style-type: none">○ Diagnostikoaren balorazioa: Oriok dituen ekipamenduak nahikoa dira? Nola baloratzen dituzue Orioko ekipamenduak?○ Ekipamenduek dituzten beharrak eta aurrera begira izango dituztenak identifikatzea. Zer behar dituzue? Etorkizunean zein behar izango dituzue?• Talde handian sozializatu• Saioaren balorazioa
2017ko azaroak 29: Hezkuntza/Sozio-sanitarioa/ Merkataritza/ Turismoa	



3. Prozesuaren deskribapena

7.

2017ko
Abenduak 13:
Herritarrak eta
elkarteetako
ordezkariak

- Sarrera (5')
- Prozesua zergatik eta zertarako egiten den
- Prozesuak eman duena aurkeztu
- Taldeetan lana:
 - Ekarpen edota proposamen berririk? jaso
 - Irizpideak landu eta lehenetsi (1-3)
 - Ekipamendu berriak lehenetsi (4)
- Talde handian:
 - Lehenetsi (gometxak)
 - Irakurketa orokorra
- Saioaren balorazioa
- Hurrengo urratsak





4.1 Partaidetza-datuak

Hiru bileratako bakoitzean 30 lagunetik gora herritarrek hartu dute parte.

- Azaroaren 22an (**Kultura, Kirola, Gazteria**) **32 lagunek** hartu zuten parte. Horietatik 12 emakumeak eta 20 gizonak izan ziren.

Adinari dagokionez, 3 pertsona 25 urtetik beherakoak izan ziren, 18 pertsona 26-45 urte bitartekoak, 11 pertsona 46-65 urte bitartekoak, eta pertsona bat 66 urtetik goragokoa.

- Azaroaren 29an (**Sozio-sanitarioa, Hezkuntza, Merkataritza, Turismoa**) **37 lagunek** hartu zuten parte. Horietatik 26 emakumeak eta 11 gizonak izan ziren.

Adinari dagokionez, pertsona bat 25 urtetik beherakoa izan zen, 18 pertsona 26-45 urte bitartekoak, 15 pertsona 46-65 urte bitartekoak, eta pertsona bat 66 urtetik goragokoa.

- Abenduaren 13an, **azken saioan**, **36 lagunek** hartu zuten parte. Horietatik erdiak emakumeak izan ziren eta beste erdiak gizonak.

Adinari dagokionez, 3 pertsona 25 urtetik beherakoak izan ziren, 11 pertsona 26-45 urte bitartekoak, 22 pertsona 46-65 urte bitartekoak, eta pertsona bat 66 urtetik goragokoa izan ziren.





4. Eraitza

4.2 Ekipamenduen balorazioa

Oro har, Orioko elkarteetako kideek balorazio oso ona egiten dute dituzten ekipamenduei buruz. Oriok ekipamendu asko eta desberdinak dituela aitortu dute. Elkarrekin eta eragileak dituzten ekipamenduekin asetuta daude eta gauza bakarrak atentzioa eman die, eta azpimarratu dute, aurrekontua txikia dela ekipamendu guztien mantenua eta behar diren inbertsioak egin ahal izateko.





4. Eraitza

4.3 Gaur eguneko ekipamenduetan hobekuntza proposamenak

Elkarteetako eta erakunde desberdinetako kideek hainbat konponketa eta hobekuntza proposamen egin zituzten gaur egun erabilgarri dauden ekipamenduetarako. Hona hemen:

ARLOA	HOBKUNTZAK
Kultura	<ul style="list-style-type: none">• Arraun Etxeko areto nagusia ekitaldi desberdinetarako egokitu.• Salatxo Aretoaren irisgarritasuna hobetu.• Natur taldearen lokala: berritu eta egokitu.• KTAñ igogailuak jarri.
Kirola	<ul style="list-style-type: none">• Surfeko lokalaren pareten saneamendua.• Futbol zelaiko belardia aldatu (laster).• Arraun Etxeko sarbidea hobetu.• Arraun Etxeko pantalanaren irisgarritasuna hobetu.



4. Eraitza

ARLOA	HOBKUNTZAK
Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Zaraguetako frontoiari etekina ateratzeko hobekuntzak egin.• Haur eskolako terrazak estali gelari luzapena emateko.• Hondartzako espaloia zabaldu.• Moila aldetik irisgarritasuna hobetu.• Zaragueta Herri Eskola:<ul style="list-style-type: none">○ Argiteria.○ Kanpo espazioa handitu.○ Aterpe baten beharra.○ Areto bat ikasle guztiak elkartzeko.• Orioko Herri Ikastola:<ul style="list-style-type: none">○ HH, LHko fatxada berritu (segurtasunagatik).○ Ibai aldeko sarrerarako aterpea.○ DBHn eremu estalia.• Danbolin Musika Eskola:<ul style="list-style-type: none">○ Berogailu-sistema, elektrizitatea.○ Irisgarritasuna (igogailuak).○ Instrumentuak.



4. Eraitza

ARLOA	HOBKUNTZAK
Sozio-sanitarioa	<ul style="list-style-type: none">• Osasun zentroa handitzeko egokitzapenak egitea.• OZan hainbat elementu: sarrerako atea, igogailua.• Gizarte zerbitzuak optimizatu.• Gizarte-ongizateko baliabideak hobetu, adinekoak etxean mantentzeko.
Merkataritza	<ul style="list-style-type: none">• Aparkalekuak erdigunean. (polideportiboan udalarenak direnak futbol zelai azpikoekin ordezkatzeko, eta honetan sistema errotatiboa jarri.)
Turismoa	<ul style="list-style-type: none">• Turismo bulegoa behera jaitsi, eta udan beste informazio puntu dinamikoak sortu hondartzan (herrian zer dagoen informatzeko)• Aparkaleku handietan herriari buruzko informazio orokorrarekin kartelak ipini.• Benta gainerako aparkalekua auto-karabanentzako egokitu, eta bidea egokitu, bide bazterreko seinaleak, etab.• San Martingo argiteria, kalearen egoera eta saneamendua.



4. Emaiza

ARLOA	HOBEKUNTZAK
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none">• Baserri-bideak konpondu.• Baserri-bideetako urak kanalizatu .





4. Emaizta

4.4 Ekipamendu berriak egiteko proposamenak

Etorkizunean, gaur egun ez dagoen eta sortu beharra ikusten diren honako ekipamenduak proposatu dira:

ARLOA	BERRIAK
Kultura-Hezkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Auditorioa (erabilera anitza: kontzertuak, zinema, antzerkia, dantza...)• Kofradia, kultura eta turismorako elkargune bezala
Kirola	<ul style="list-style-type: none">• Frontoia: federatuek erabiltzeko modukoa
Sozio-sanitarioa	<ul style="list-style-type: none">• Adinekoentzako ariketa fisikoa egiteko eremu gehiago• Tanatorioa
Turismoa	<ul style="list-style-type: none">• Pentsioak, lotarako toki merkeak• Auto-karabanentzako gunea herrian
Natur baliabideak	<ul style="list-style-type: none">• Motondo padura bihurtu.• Sarikola balioan jarri• Herria ibaira begira: Mutiozabal, Sarikola....



4. Eraitza

ARLOA	BERRIAK
Mugikortasuna	<ul style="list-style-type: none">• Oinezkoentzako kale gehiago• Bidegorriak bizikletentzako
Espazio libreak	<ul style="list-style-type: none">• Dikeko zonaldean, kirol-gune edo aisialdirako espazioak• Abaromendi aldean, kirol-eremuak eta aisialdirako eremuak• Parke estaliak haurrentzako• Frontoi txikiak jolasguneetan
Ortzaika auzoa	<ul style="list-style-type: none">• Elkartzeko gune estalia



4.5 Lehenetsitako ekipamendu berriak

Azken saion parte hartu zutenek, proposatzen ziren ekipamendu berrietatik honakoak lehenetsi zituzten:

ARLOA	BERRIAK
Kultura- Hezkuntza	1. Auditorioa (erabilera anitza: kontzertuak, zinema, antzerkia, dantza...)
Espazio libreak	2. Parke estaliak haurrentzako
Kultura	3. Ortxaika auzoan elkartzeko gune estalia
Kultura	4. Kofradia egokitu, kultura eta turismorako elkargune bezala
Kirola	5. Frontoia: federatuek erabiltzeko modukoa
Natur baliabideak	6. Motondo padura bihurtu.
Mugikortasuna	7. Bidegorriak bizikletentzako



4. Emaidza

ARLOA	BERRIAK
Sozio-sanitarioa	8. Adinekoentzako ariketa fisikoa egiteko eremu gehiago
Espazio libreak	9. Abaromendi aldean, kirol-eremuak eta aisialdirako eremuak
Turismoa	10. Pentsioak, lotarako toki merkeak









5.1 Balorazioa

Prozesuan parte hartu zuten herritarren gehiengoak balorazio positiboa egin zuten, eta eskertu egin zuten iritzia emateko espazioak eskaintzea.

Balorazioaren adierazgarri azkeneko saioan beheko taula bete zuten bertaratu zirenak, eta beherago dauden oharrak ere idatzi zituzten.

BALORAZIOA				
HERRITARREN PARTE-HARTZEA	xxx	xxxxxxxxxxxxx x	Xxxxxxxxxxxxx xxxxxx	xxx
LANERAKO GIROA		xx	Xxxxxxxxxxxxx xxxxxx	xxxxxxxxxxxxx xxxx
GAIAK LANTZEKO MODUA	xx	Xxxxxxxxx	Xxxxxxxxxxxxx xxxxxxxxxx	xxxx
JASOTAKO INFORMAZIOA		xxxxx	Xxxxxxxxxxxxx xxxxxxxxxxxxx	xxxxxxxxxx
EGINDAKO LANAREN EMAITZA	xx	xxxxxx	xxxxxxxxxxxxx xxxxxxxxxxxxx xx	xx

OHARRAK:

- Dokumentazioa aurrez bidaltzea, edo Kultur Etxean ikusteko aukera izatea, edo Web-gunean, eskertuko nuke.
- Merkatariek ezin izan dute etorri, dendak 8etan ixten direlako.



6. Balorazioa

19.

- Egindako lanaren emaitza ikusteko dago.
- Udalak aintzat hartzea espero dut guztiok egin dugun ahalegina.
- Beste dinamika mota baten aldekoa naiz. Proiektu berriak eztabaidatzeaz gain, hobekuntzen artean ere aukerak lehenestea litzateke egokiagoa.
- Gutxienez lanean segi.
- Gazteak faltatu dira.
- Aniztasunaren ikuspegitik faltan bota ditut kanpotik etorriberriak, musulmanak...
- Ez dadila hemen geratu...
- Emaitzak ikusi beharko dira

